

Ehun aldiz Kafka

Zehaztasuna. Idaztea zen bere izatearen norabide emankorrena. Hitz emari txikienarekin ahalik eta eraginkortasun handiena lortzen zuen



ARITZ GORROTXATEGI

Duela hogeita lau urte idatzi nuen nire lehen nobela. Lehena izanik, inperfekzioz eta gehiegikeria puntu batez bete dago, baina kariño handiz gogoratzen dut. Kafkaren labankada zuen izenburua, eta, izenburuak salatu bezala, Kafka da eleberraren oinarrietako bat. Idazle txekiarraren heriotzaren mendeurrena betetzen den honetan, ez nator, noski, nire nobela hartaz hitz egitera. Labanarekin hasi nahiko nuke, ordea, izenburuko labanarekin. Izan ere, 1911ko azaroak 2an honako hau idatzi zuen Kafkak bere egunkarian: «Gaur goizean goiz, lehen aldiz denbora luzean, norbaitek labana batez bihotza bihurtzen didala imajinatzen plaza». Antzeko zerbaite idatzi zuen Prozesua eleberrian, azken aurreko esaldian hain zuzen ere: «...besteak bihotzean labana sartu eta leku hartan bitan birarazten zion bitartean» Esaldiak asko adierazten digu Kafkak intentsitatearekin eta sufrimenduekin zuen harremanaz. Plazera ere aipatzen du, masokismo puntu bat agerian utziz. Josef K.-k bere borraroei lagundu nahi die lana egiten, baina biktimaren postura «sinesgaitza» da. Hartuko zukeen labana eta bere buruari sartu, baina, funtsean, ezin zien lan guztiaren zama kendu funtzionarioei.

Orfeo bezala irudikatzen dut idazle txekiarra, labana bihotzean duela lur azpiko eremura jaisten. Ez du lirarik eskuan, ez ditu bere ahotsaz gizakiak eta piztiak



Franz Kafka idazle txekiarraren gaztaroko erretratua.

liluratzen. Hizkiak jariatzen zaizkio eskuetatik. Idazlea da. Ez bokazioaz. Hori baino askoz gehiago. «Ni neroni literaturaz osatua nago, ez naiz besterik, eta ezin naiz besterik izan», aitortzen dio Felice Baurrei gutun batean. Ez dira gutxi horrelako aitortzak Kafkaren idatzietan. Idaztea zen bere izatearen norabide emankorrena. Hitz emari txikie-

narekin ahalik eta eraginkortasun handiena lortzen zuen. Zehaztasunean bilatzen zuen komikotasuna. Eta zeregin horri lotu zitzaion, gainerako gaitasunak alde batera utzita: sexua, maitasuna, musika, gogoeta filosofikoa... Ez zuen balio eguneroko bizitzarako. Bere gela eta idaztea ziren bere aberriak. «Literatura ikusezin batera kate iku-

sezin batzuez lotuta dagoen norbait naiz, eta garrasi egiten dut inor hurbiltzen denean, kate hori uki dezakeela uste baitut». Kateatze horren jakitun zen Kafka, eta kateatze hori bilatzen zuen beste ezeren gainetik. Neurri handi batean, literaturaren anakoreta bat izan zela esan daiteke, baina ez zuen Jainkorik edo zerurik buruan, auzitegi ikusezinak

eta larritasuna baizik.

Lur azpi horretara doala, ez dago heriotzarik, ez dago jainkorik, ez Euridizerik, erruduntasunaren eta sosegurik ezaren erresuma baizik. Roberto Calassoren ustez, Kafkaren lan osoa espantuen sorta ugariaren inguruko ariketa bat da. Arroztasuna da nagusi haren testuetan, mundu honetakoa ez dirudiena hasiera batean, baina, aitzitik, mundu honen sustraletan oso errotuta dagoena. Desagertua eleberriko Karl Rossman pertsonaia arrotza da, hitzaren adierarik erradikal eta literalenean, kanporatutako norbait; Gregor Samsa, berriz, bere logelan bertan da arrotz, biologikoki arrotz: Joseph K.-k ez du modurik jakiteko zergatik epaitzen duten, zein den prozesuaren jatorria; K. lur-neurtzaileak ez du Gaztelura heltzeko modurik. Eta abar. Jaitsiera horretan, Kafkak ezin dio utzi literaturan pentsatzeari. Absurdoarekin eta kezkearekin lotzen dugu, ezkutatutako indarkeriarekin, hautemanezina zai-gun berezko kondena batekin..., baina fabulatzaile aparta da, ateak eta leihoak irekitzen ditu hormatzarrak baino ez dauden lekuan. Metaliteraturarekin ausartzen denean, gainera, emaitza txundigarriak lortzen ditu. Esaterako, On Kixote Sancho Panza beraren asmamen bat dela dioenean, edota itsas-laminek isiltasunaren aurrean Ulisesek burutzen duen fartsa agerian jartzean (belarriak tapatzekoa alegia).

Arestian esan bezala, ehun urte bete dira Kafka hil zenetik. Lur azpira jaisten jarraitzen du, orduko irmotasun berarekin, bide berriak urratuz. «Hildako bat hilotik atera ezin daitekeen bezala, inork ez nau nau nire lan-mahaitik erauziko gaez». Mahai hori sekula ez dago hutsik.



Eman hegoak euskarari



Iluntzea elorripean

JON MARTIN-ETXEBESTE

«Entzun naturaren soinu ederra. / Benetan ulertzen duzunean, esan». Hala ixten du poema bat Jon Gerediagak, eta badirudi azken urtetan poesiagintzan duen misioa esplizitatu duela. Maitasunaren eta heriotzaren metafora gisa ageri da

natura, eta bere horretan paisaiak dituen koloreen eta mugimenduen deskribapen sotila da. Naturaren erritmo pausatua islatua dago poemen irakurketako kadentzian. Konplexua da gizakiaren pentsamendua, gaseosoa eta dardartia. Amalurra, berriz, pausatua da eta ziklikoa. Liburu honetan iza-

diaren loratzea da nagusi, txorrotzioak, eta ikusten dutena baino gehiago ikusten dakiten gizaki kontenplatiboak. Bakar-dadean eta intimitatean eraikitako liparrak izanagatik bestelako presentziak sumatzen dira, haizeak gorpuztutako mugimenduak, zeruak margotutako mezuak eta loreek oparitutako usainak: «Entzun, bila dezagun bitartean / zuhaitz artetik datorren soinuaren jatorria. / Hiriaren azken marmarra da. Eta txori bat. / Gauza bera dira, finen».

ZERU-LURREN LIBURUA

Jon Gerediaga
Ed.: Elkar, 2023
88 orri,
14,00 euro



Bere aurreko liburuaren, Natura berriak-en, jarraipen liburutzat hartu daiteke. Lehengoak Xabier Lete saria irabazi zuen eta Irun Hiria sariaren jabe egin zen bigarren hau; kantugilearen oihartzunak sumatzen dira zenbait poematan: «zu, nora zoaz, giza aberea», «isilune luzeekin ordaintzen duzu zorra»... Liburua poemario koherentea da, iturri klasikoetatik edan duena, eta sinboloren erabilera elegante egiten du idazle bilbotarrak. Goi mailako liburu, irakurle sibiritentzat.